

Atzizkiak II

Gogoratu

Atzizkiak lexemaren atzetik jartzen diren morfemak dira.

- **-te, -aro, -ero eta -aldi** atzizkiek denbora adierazten dute: lehortea, haurtzaroa, asteroa...
- **-ti, -tsu, -tun, -zale eta -kor** atzizkiek nolakotasuna adierazten dute: basati, barazkizale, menditsu...

1. Inguratu hitz atzizkidunak eta idatzi jatorrizko hitzak eta atzizkiak.

	Atzizkidun hitza	Jatorrizko hitza	Atzizkia
Egunero joaten naiz bizikletaz eskolara.			
Amonaren txakur beltza oso iletsua da.			
Lehortea latza jasaten ari dira Afrikan.			
Oporraldian hainbat herrialde bisitatuko ditugu.			
Jende berriaren aurrean lotsatia naiz.			

2. Sortu hitz eratorriak, beheko hitzei atzizki hauek lotuz: **-te, -aro, -ero, -ti, -zale, -kor**.

izotz: _____

lo: _____

gazte: _____

hilabete: _____

bertso: _____

aldatu: _____

3. Bete esaldiak, hitz hauei atzizkiak lotuz: **ez, elur, lotsa, pilota, aisia**.

- Atzoko _____ ren ondorioz, eraikinak elurrez estalita agertu dira.
- _____ bazara, hainbat pilotaleku dituzu herrian.
- Ez zaitez _____. Gauzen alde onari begiratzen jakin behar da!
- Josu izugarri _____ da, eta ez da inoren aurrean hitz egiten ausartzen.
- _____ -az gozatzeko txangoak eta tailerrak prestatu ditu udalak.